

402 zenbakia, 2000ko martxoaren 17a  
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

# Berrigara

Bergaran egon  
nintzenean...

Bedelkarrek souvenirrak ipiniko dituz salgai

**OPEL** 

**TALLERES OLA**

Olabarren auzoa z/g.  
Tf: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:  
**TAKOLO AUTOAK, S.L.**  
Araba Etorbidea 3 (Eskatu edifizioa).  
Tf: 943 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

# Zorionak denoi!



**Bergarako  
Udala**

**Aratusteetako lehiaketa  
25.000 pezetako bi sari:**

Hostalaritzako saria,  
**UDALAK** emana:  
*Maxim's kafetegia*

Kale animazioko saria,  
**BEDELKAR**-ek emana:  
*"Kaleko saltzaileak"*



# ARAJEA ALAI



**Berriztua**

Osintxu

Elgeta

Dia


**ALAI**  
**943 76 22 96**  
**Urarte 12**  
**BERGARA**



Zerbitzu  
ofizial berria



**PEUGEOT**



## Goiena

Mikel Irizar / Goienako bateratzailea

S an Martin plazako Kutxaren bulegoan gogoratzen nauenak esango du: Hau be Goixenan jaok? Eta erantzuna baietza da, bi urtez Kutxa utzi eta Goiena bultzatzen jarri naizela. Lehenik, hedabideen kontua gustoko dudalako, baina batez ere egitasmoaren etorkizunean erabat sinisten dudalako.

Sinistu, hasieratik sinisten nuen, baina Goienako bateratzaile moduan tokatu zaizkidan lanak eginaz konfiantza hori indartu egin zait. Izan ere, Debagoieneko herrietan oso harrera ona izan du egitasmoak. Argi ikusi dute herri bakoitzaren nortasunak emango diola Goienari aberastasuna, eta, aldi berean, arlo batzuk konpartitzeko premia. Dauden zazpi euskara elkarateko zuzendaritzek bere onespina eman zioten iazko urte amaieran, eta geroztik batzar orokorretan aurkeztu dute. Gaur Goienak 2.500 debagoiendarren sostengua du, seguruenik eskualdeko oinarri sozialik zabalena.

Erakundeetan ere ondo hartu dute egitasmoa. Eskualdeko udal batzuk da-

goeneko prest daude aurrera egiteko, eta besteak gaia aztertzen ari dira. Lais-ter, kooperatiba sortzen denean, ekingo diogu elkarre eta udalen arteko hiztarmenak lotzeari.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak interes handia dute Goienan. Oro har, iristen ari zaigun Informazioaren gizarte euskarak izan dezakeen lekuaz kezkatu daude, eta hedabideetan zerbait egin beharraz konbentzita ere bai. Hori dela eta Goienaren garapena lagundu nahi lukete, eta hurbiletik jarraitu, beste eskualde batzuetan honen antzeko egi-

*“Debagoieneko herrietan oso harrera ona izan du egitasmoak. Argi ikusi dute herri bakoitzaren nortasunak aberastuko duela Goiena, baita, arlo batzuk konpartitzeko premia ere”*

tasmoak abiatzeko aukera aztertu ahal izateko.

Goiena irla bat izan ez dadin landu-tako harremanetan, ETBrekin duguna aipatu behar da. Telebista seinaleak biderkatuko direla ikusita, egungo kateak kuotarik ez galtzeko estratejiak prestatzen ari dira, eta ETB ere bai. Aukera bat herri telebistekin elkarlana indartzea litzateke, inork baino sustrai luzeagoak eta sare zabalagoa izateko. Dagoeneko, Arrasate Telebistak Euskal Telebistarentzat agentzia lana egiten du, egunero albisteak eta tartean irudiak bidaliz. Goiena Telebistak hori bera egingo luke, baina eskualde osorako, eta aurrerago ETBren korrespontsala izango litzateke.

Gauza asko, eta ez ditut guztiak aipatu. Esaterako, Euskaltelen bidez gure produktuak Euskal Herri an zabaltzearena, edo Interneten eskualderako zerbitzuak sortzeko asmoa. Ulertuko duzue zergatik Goienan dihardugunok ez daukagun aspertzeko astirik. Eta, gauzak egin ahala, zergatik sinisten dudan gero eta gehiago egitasmoan.<

### barruan



**Joxe Jabier Iñigo**

Kontseiluko plangintzaburua

*“Herriarrek jarrera aktiboa erakutsi behar diete agente sozialei”*

8.



**Ricardo Iturbe**

Txirrindularia

*“Domekako Gorkako igoeran lehen bosten barruan sartzea da nire helburua”*

20.



**Pello Garitano**

Lokatza taldekoa

*“Ziklismua beti gustau izan jat, baina batez be semia hasi zanian hartu neban afiziñua”*

29.

# AGENDA ETA ZERBITZUAK

## Farmaziak

### Eguakitza 17:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Zapatua 18:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Domeka 19:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Astelehena 20:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

### Martitzena 21:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Eguaztena 22:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Eguena 23:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

## Ogia

Domeka 19: Konde.

## zozketak

### BONO LOTO

#### Eguakitza 10

11-29-39-45-46-48 (osag.13/itz.1)

#### Astelehena 13

3-8-16-20-33-37 (osag.7/itz.9)

#### Martitzena 14

1-7-17-22-27-48 (osag.34/itz.5)

#### Eguaztena 15

1-17-22-27-35-41 (osag.30/itz.6)

### PRIMITIVA

#### Zapatua 11

6-19-20-25-34-46 (osag.33/itz.1)

#### Domeka 12 Saritzarra

3-24-29-37-38-45 (osag.26/itz.0)

### ONCE

Eguakitza 10: 29.605 (057 seriea)

Domeka 12: 98.408 (016 seriea)

Astelehena 13: 04.719

Martitzena 14: 19.792

Eguaztena 15: 37.149


## hau be badou?

### Lehortea ei dator

Ikerlariek iragarri dute Lurrean ur-gezarekin arazoak izango ditugula datorren mendean. Ikerketa Keniako laku baten inguruan egin da, baina berotze naturalak (gizakiaren jarduerarekin zerikusirik ez duena) mundu osoan du eragina. Lehorte egoerak kalte handiak eragingo lituzke, migrazio orokorrak, esate baterako.

Elhuyar

## Eguraldia



### Zapatua 18

Goizean, zerua garbi samar egongo da; arratsaldean oso hodeitsu. Temperatura berdintsu edo beherantz. Haizeak iparraldetik joko du.

### Ilargiaren aldiak



Ilbete: martxoak 20



Ilbehera: martxoak 28




Ilberri: apirilak 4



Ilgora: apirilak 11

Igeldoko metereologi behatokia




### Domeka 19


Zeru estalia. Aldika euri-zaparradak botako ditu. Temperaturak behera egingo du. Haizeak iparraldetik jotzen jarraituko du, ahul.

### Eguzkia

Domeka, martxoak 19



Sortu: 07:22



Gorde: 19:28

## Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate  
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Eguena 9	17	12	-	23	-1	-
Eguakitza 10	16	7,5	-	21	-1	-
Zapatua 11	16	8	-	21	2	-
Domeka 12	15,5	9	-	17	7	-
Astelehena 13	9	5,5	-	15	7	-
Martitzena 14	8	5	-	16	5	0,3
Eguaztena 15	10,5	3	0,5	12	2	0,2

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Txabetada, txabetadia

Burutazio zoro antzekoa.  
Txabetadiak emon batez ere.

- Txabetadia emon joskuan da artu bespia ta Bilbora joan giñuztan.

- Asieran pentsau najuan nausixan txabetadan bat zala.



JOSU OKINA

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

## hildakoak

### BERGARA

Sebastian Larrañaga Etxaniz

Martxoak 8, 85 urte

Jose Luis Gabilondo San Martin

Martxoak 13, 70 urte

### ANTZUOLA

Juanan Benita Peña Kortabarria

Martxoak 13, 92 urte

## jaiotakoak

Asier Erramun Roman Lazpiur

Otsailak 29

Miren Muñoz Rodriguez

Martxoak 5

Oihan Ibarra Zubizarreta

Martxoak 6

## zorion agurrak



**Ariana Sasieta**  
23an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Aita, ama eta Elena.



**Maider Agirrezabal**  
22an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Igor Okina**  
18an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Usue Goñi**  
23an 9 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Antxon Txintxurreta**  
19an urteak. Zorionak eta muxu bat!  
Aitor eta Ainhoa.



**Ainhoa Larruskain**  
17an 9 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Markel Gomez**  
18an 13 urte.  
Urte askotarako!  
Ibai eta etxekoak.



**Mikel Elkorberezbira**  
23an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Nekane Martinez**  
19an urtebetetzea.  
Urte askotarako eta muxu handi bat!  
Leire eta Unai.



**Kimberly Castro**  
19an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Aitziber Perez**  
22an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Manex Asula**  
21ean 5 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Aitzol.



**Jon Etxeberria**  
19an 2 urte.  
Urte askotarako eta muxu handi bat!  
Etxekoak eta Omer.



**Irene Gartzia**  
21ean 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Ibai Otxoa**  
22an 15 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Amaia Cabrera**  
20an 13 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Nere Amaia Alberdi**  
17an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Lagun bat.



**Usue Goñi**  
23an 9 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta lehengusuak.



**Lucia Aranda**  
17an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Jon eta Leire.



**Danel Santamaria**  
20an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Unai Sanchez**  
19an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Aitor.



**Victor Isado**  
17an 15 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.

*Hurrengo alean,*  
**martxoaren 24a eta 30a**  
*bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.*

### URTEURRENA

## Boni Olabarria Larrañaga

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoak 19, goizeko 11:30etan, Osintxuko elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Dolores Jauregi Laskurain

Ignacio Ibarzabalen alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoak 19, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Maria Carmen Garcia Lopez

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoak 19, eguerdiko 12:30etan, San Pedron. Martxoaren 26an ere bere oroimenezko meza emango da Santa Marinan, goizeko 11:30etan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

## Jose Luis Gabilondo San Martin "Basarte"

Bergaran hil zen 2000ko martxoaren 13an, 70 urte zituela.



*Samin-agurrak bidali zenizkigutenoiz eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ANTZERKIA

▶ **"Un follon de testamento"** bihar, zapatua, 22:00etan Arrasateko Amaia antzokian, Algara antzerki taldearekin.

▶ **Eibarko antzerki jardunaldiak**: astelehenean, hilak 20, Narruzko Zezen taldearen **"Apertura orangutan"**; martitzenean, **"El viaje de Lola"** (Alala taldearena); eguaztenean, **"Dama eta Kardinala"** (Txalo) eta eguakitzean, hilak 24, **"8 olivettis poeticos"** (Antzerki Imaginarioa). Emanaldi guztiak Unibertsitate Laboralean 20:30etan.

▶ **"Dama eta Kardinala"** datorren eguakitzean, hilak 24, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan, Txalo taldearekin.

## MUSIKA

▶ **Jam**. Gaur, eguakitza, **SA eta Eraso**. Bihar, zapatua, **Martires del compas** eta domekan, berri, **Eduardo Pico**. Guztiak 22:00etan.

▶ **Amaraun** taldea gaur, eguakitza, 23:00etan Elorrioko Ateneoan.

▶ **Betagarri** bihar, zapatua, 23:00etan Elgetako Gaztetxean.

## ERAKUSKETAK

▶ **Mugen gainetik** gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta

## ERAKUSKETA

### Ainara Leteren argazkiak

**Non:** Nahikari tabernan, martxoaren bukaerara arte.

Iruñean eta Bartzelonan argazkilaritza ikasketak egin ondoren, Ainara Letek (23 urte) bere lehenbiziko erakusketa ikusgai du egunotan Nahikarin. Zuribeltzean aterako 16 argazki zintzilikatu ditu, guztiak gorputz atal ezberdinei buruzkoak eta hainbat ikusleri sorpresa sortarazi dietenak. Ainararen hitzetan, "orain dela bi urte atera nituen argazkiak dira, makro efektua probatzeko gorputz atalak handitzeko egindakoak, esperimentatzearen batez ere. Beharbaba jendea ez dago ohituta honelako argazkiak ikustera". Esan bezala, Bartzelonan ikasi zuen Ainarak, besteak beste, Manolo Laguillo irakaslearekin. Nahikariko erretratuak zuribeltzean atera-takoak dira denak; "jeneralean zuribeltzean lan egin izan dut eta gorputzak edo erretratuak egiteko estetikoagoa iruditzen zait zuribeltza" diosku Ainarak.

Azkenaldian argazkilaritza piskat albo- ra lagata duela ere esan digu; "azkenaldian nagi samar nabil eta ez dut argazki gehiegi atera. Azkenenengo aldiz, gerturazte lenteekin, billarreko bolei kolorezko



Ainara Leteren lehen erakusketa ikusgai Nahikarin.

argazkiak ateratzen ibili nintzen, koloreak deformatuz. Azken boladan koloretako argazkiak atera ditut. Eta badauzkat orain dela urte erdi aterako bilutsien argazkiak baina ez dut oraindik ezer egin berriekin". Gustoko argazkilarien artean, Mapplethorpe edota Man Ray aipatu dizkigu eta argazkilaritza munduan arlo artistikoa lantzea gustatuko litzaiokeela dio; "publizitateak baino, arlo artistikoak edota arkitektura argazkilaritzak gehiago erakartzen naute".

ta, **"Wakati Osao"** erakusketak Kultur Etxean.

▶ **"Euskal txokoak"** izenburupean, **Azur**-en argazki etilikoak Go-Jam aretoan.

▶ **Dani Laskurainen mar-goak** Zarautzko Torre Luzea

aretoan, apirilaren 9ra arte.

▶ **Pello Alberdiren margoak** Iruñeako Molmar galerian (Curia, 18), apirilaren 19ra arte.

▶ **Koldo Plagaroren "Mundua nire ikuspegitik"** argazki erakusketa Urretxuko

Juan de Lizarazu erakustokian, martxoaren 26ra arte.

## LEHIAKETAK

▶ **Bergarako XV. Literatur Lehiaketa**. Bergaran jaio, bizi edota lan egiten duen edozei-

**URRATS**  
TABERNA

**KOKTEL BEREZIAK**  
GAUETAN

Ibargarai 4  
943 76 52 92

**ETXE BERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**DENA**  
**100etik**

**ZURE OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta 3

nek har dezake parte. Lanak euskaraz idatzita izan beharko dira eta adinaren arabera bost talde bereiztuko dira. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 2an bukatuko da. Argibide gehiago Udaleko Euskara zerbitzuan. 943 77 91 66.

► **III. Abdon Juaristi pintura lehiaketa.** Kartelen gaia "Zezenak Bergaran" izango da eta lanak Kultur Etxen entregatu beharko dira, maiatzaren 22tik ekainaren 4ra bitartean. Irabazleak 150.000 pezeta eta plaka eskuratuko ditu. Argibide gehiago Kultur Etxean, 943 77 91 58 zenbakian.

## IKASTAROAK

► **Autoestima ikastaroa** martxoaren 23tik ekainaren 8ra, Pepa Bojo sexologa eta sikologoaren eskutik. Arrasateko Udaleko Emakume Sailak antolatuta. Izen-ematea (doan) martxoaren 21era arte zabalik. Argibide gehiago 943 79 09 00 zenbakian.

## DEIAK

► **Udaleko Gizarte Zerbitzuak**, herriko ikastetxe-ekin batera antolatutako jardunaldiak. **"Seme-alaba gazte-txoekin komunikazioa"** izenburupean, 12 eta 16 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta, martitzenean, hilak 21, eta eguenean, hilak 23, **Carmen Vicioso** psikologa klinikoa eta **Maria**

**Angeles Becerro** sendagilea hizlari izango dira 18:30etan Kultur Etxean.

► **"Demokrazia Euskal Herriarentzat"** lelopean, euskal presoen eskubideen aldeko manifestazioa Baionan martxoaren 25ean. Izen-ematea Pol-Polen eta Arranon.

► **Elgetako Gaztetxearen** 4. urteurreneko ospakizunen barruan, bihar, zapatua, bazkari herrikoia izango da.

► **Hitzaldia.** "Emakumeen egoera Hego Ameriketara. Hiru adibide: Peru, Guatemala eta Txiapas", martitzenean, hilak 21, 19:00etan Arrasaten, Monterronen.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, martxoak 22, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **Euskal Herrian Euskaraz** taldeak deituta, "Ofizialtasun erreale eta osoa orain!" lelopean, kontzentrazioa egingo da bihar, zapatua, 12:30etan Bergarako epaitegian.

## OHARRAK

► **Udalak**, urtero legez, trazio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartu du. Astelehenera arte 2000. urteko eroldaren aurkako errekurtsoak eta erreklamazioak aurkezteko epea izango da. Zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 31ra arte izango da zabalik.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

##### La milla verde

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:00, 22:30.

Astelehena, ik. eguna: 19:30.

##### House on Haunted Hill

Zapatua: 17:00, 19:30.

Domeka: 17:00.

##### Juana de Arco

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ARRASATE. Alai zinema

##### El sexto sentido

Eguakitza: 19:00; 22:00.

Zapatua: 17:00; 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00; 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

#### ARRASATE. Amaia

##### Lluvia en los zapatos

Eguena, zine-kluba: 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

##### Man on the moon

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

##### La milla verde

Eguakitza: 22:00.

Zapatua: 18:30, 22:00.

Domeka: 18:30, 22:00.

Astelehena: 18:30, 22:00.

Martitzena, ik. eguna: 18:30, 22:30.

#### OÑATI. Santana

##### El coleccionista de huesos

Eguakitza: 22:30.

Zapatua eta domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

##### Entre gigantes

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ELORRIO. Arriola

##### Sleepy Hollow

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

#### Mecanicas celestes

Eguena, zine-kluba: 20:00.

### LA MILLA VERDE

**Zuzendaria:** Frank Darabont.

**Aktoreak:** Tom Hanks, David Morse, Bonnie Hunt.

≥13 urte

Stephen King idazle ezaguren nobela batean oinarrituta, Estatu Batuetan 1930ko hamarkadan girotuta dago. *Paul Edgecom* (Tom Hanks) espetxe bateko langilea dugu eta zigorra heriotzeko zai dagoen *Coffey* (Michael Clark) presoarekin harreman berezia izango du...

### HOUSE ON HAUNTED HILL

**Zuzendaria:** William Malone.

**Aktoreak:** Geoffrey Rush, Famke Janssen, Taye Diggs.

≥18 urte

Hainbat parke tematikoen jabea den *Steven Pricek* (Geoffrey Rush), opari modura, zentru psikiatriko bat egondako leku misteriosuan jai bat ospatzea proposatuko dio bere emazteari (Famke Janssen). Baina gonbidatuak ez dira esperotakoak izango...

### JUANA DE ARCO

**Zuzendaria:** Luc Besson.

**Aktoreak:** Milla Jovovich, Dustin Hoffman, John Malkovich.

≥18 urte

1429. urtean, Juana, 17 urteko gazteak Frantzia errekuperatzeko eta Carlos printzeari laguntzeko Jainkoak aukeratua dela dioten ahotsak omen ditu. Horretarako ejerzito bat gidatu beharko du, ingelesei aurre eginez. Baina 19 urterekin sorgintzat joko dute eta sutara bidali...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

## ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

## IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
FAXA: 943 76 09 32

## ARRI

**Industri  
hornidura**

Zubiaurre 30  
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.  
Mugikorra: 656 78 64 84.

**Joxe Jabier Iñigo herrian izan genuen astelehenean. Iñigok, Bai Euskarari Akordioaren inguruko Plan Estrategikoa ezagutzera eman zuen Migel Altunan izandako bilera batean.**

**G.** Zein da bileraren helburua?

**E.** Bi helburu nagusi ditu. Batetik herri mailako gizarte eragileak, herritarrak orokorrean eta bereziki euskalgintza informatzea Kontseiluaren lana zein puntutan dagoen une honetan eta aurrera begira emango dituen urratsak zein izango diren. Beste era batera esatearren, jendeak emandako diruarekin zer egin den azaltzera etorri gara.

Bigarren helburu nagusia, jendeari prozesu honetan inplikazio aktibo bat eskatzea da. Une honetan gizarte eragileak zein konpromiso hartu erabakitzen ari dira, eta jendeari eskatzen diogu transmititzeko gizarte eragileei konpromisoak hartzearen aldeko jarrera.

**G.** Bai Euskarari kanpainatik honako prozesua zein izan da?

**E.** Kontseilua 1997ko abenduan hasi zen lanean; 98an Bai Euskarari kanpaina antolatu zuen, indar erakusketa bat egin nahiez euskararen alde urrats kualitatibo berri bat eman behar dela transmitituz gizarteko agente erabakitzailerai. Eta segidan agente sozialaren eskutik konpromiso prozesua planteatu genuen. 1999ko maiatzean 700 agentek parte hartzeko prest daudela adierazi ziguten eta ordutik abendura Plan Estrategikoa diseinatzeko egon dira hiru urrats nagusitan: diagnostikoa helburua eta ekintzak.

**G.** Behin Plana diseinatuta, beraz, zer dator?

JOXE JABIER IÑIGO  
Kontseiluko plangintzaburua

*“Herritarrek jarrera aktiboa erakutsi behar diete agente sozialei”*



Joxe Jabier Iñigok Plan Estrategikoaren ardura ere badu.

**E.** Plana bukatuta dago, eta une honetan aipatutako 700 agente horiek erabakitzen ari dira Planak gomendatutako ekintzetatik zeintzuk asumitzeko prest dauden, hau da, zeintzuk konpromiso hartuko dituzten.

**G.** Bergarako herritar batek zer egin dezake?

**E.** Bi gauza egin ditzake. Bata, une honetan bere ja-

***“Agenteek hartuko dituzten konpromisoak erabakigarriak izango dira normalizazio puntu altuagoetara iristeko”***

rrera aktiboa erakutsi. Ez da pentsatu behar 700 agente horiek Euskal Herri mailakoak edo probintzia mailakoak izanagatik aintzat hartzen ez dituztenik herritar soilen iritziak.

Bestea, herrira begira da. Oraindik ezin du egin, baina laster egin ahal izango du Bergarako euskalgintzak horrela erabakitzen badu behintzat. Izan ere, herriko euskalgintzari, Kontseilutik herri mailan akordio eta konpromiso prozesu bat bideratzeko proposamena helduko zaio. Proposamen hau uda aldera helduko da eta Bergarako euskalgintzak proposamena onartuko balu, herritarrek prozesu horretan parte har lezakete prozesuaren aldeko jarrera erakutsiz, erakundeak bultzatuz parte hartzea eta konpromisoak hartzen direnean hauek gauzatzeko jarrera nabarmena edukiz.

**G.** Zer nolako balorazioa egiten duzu prozesu honetaz guztiaz?

**E.** Oso positiboa. Hala eta guztiz ere, nik gauza bat azpimarratu nahiko nuke; orain ari garela dena jokatzen hain zuzen ere. Ez dugu baikorregiak izan behar, ez dugu pentsatu behar orain artekoa ondo atera delako hurrengo bi urratsak ondo aterako direnik.

**G.** Zein dira hurrengo bi urratsak?

**E.** Erabakigarriak dira. Bata da maiatzean agenteek zein konpromiso hartzen dituzten eta hartutakoak txukunak diren, hemen jokatzen baitugu orain arteko lana. Bestea, erabakiak hartu osteko urratsa da, hau da, ea hartutako erabaki horiek txukunak izanda ere, betetzen diren. Urrats honetan, guztiok egon behar dugu aktibo, agente horiei lagunduz normalizazio puntu altuagoetara heltzeko.



## Udalak 79 milioi pezetatik gora balio duten lurrak erosi ditu

Mayc lantegiaren ondoan daude eta 26.000 m<sup>2</sup> dira denera

**Erosketa aho batez onartu zen astelehenean izandako ez-ohiko plenoan. 26.000 metro karratuak Gabiria-Torre eta Gabiria-Gaiñekoa etxaldeei erosi zaizkie. Lur sail hauek Mayc lantegiaren alboan daude, Surraren hegalean.**

EAJ-EA eta EH alderdien aldeko botoekin, 26.000 metrotik gorako lurrak erostea onartu zuen udalbatzak astelehenean ez-ohiko bilkuran. PSE-EE eta PP alderdie-tako zinegotziak, bestalde, ez ziren plenoan izan.

Metro karratuok, Gabiria-Torre eta Gabiria-Gaiñekoa dorretxei erositako lur sailen batuketa dira. Orotara 79.109.410 pezeta gastatu ditu udalak, eta erosketarekin, Irizar aroztegitik Mayc-eko errotondaraino eta hemendik trenaren tunel zaharrreraino dauden lur urbanizagarri zein ez urbanizagarriren jabe egin da.



Hauxe da Udalak EAJ-EA eta EHren aldeko botoekin erostea onartu duen lur eremua.

Udaleko iturriek zonalde hau zertarako erabiliko den azaldu ez duten arren, baliteke etxebizitzak eraikitzeko izatea. Bestalde, bertako lursail etako batzuk jabe publikokoak ziren:

1979. urtean barianteko lehenengo fasea egiteko udalak erosi egin zuen lurra, eta 1988an, bariantearen bigarren faserako Gipuzkoako Foru Aldundiak beste horrenbeste egin zuen.

Arau Subsidiarioetan lurrak zerbitzu gune gisa jasota daude eta ez dago argi zein erabilera emango zaien, baina ez da baztertzeko zerbitzuez gain etxeak eraikitzeko ere erabiltzea.

## Trenaren ibaiertzeko bide zaharra itxita egongo da bi hilabetez gutxienez

**Trenbide** zaharraren bidea itxi egin da Kataibiatik Ertzaintzaren egoitza eraikitzen ari diren tokira arte. Astelehenean itxi zen oinezkoendako bide hau eta gutxienez bi hilabetez egongo da horrela.

Arrazoia, geltoki zaharrraren eraikitzen ari diren etxebizitzetako garaje be-

riak dira. Garajeak egiteko lanak hasi berri dira, eta horrek eragin du itxiera. Hau guztia dela eta, Ozaeta aldetik datozen oinezkoek, tunela igaro eta barianteko bidegurutze azpian dagoen pasabide txikitik aurrera bidea itxita aurkituko dute. Gauza bera Kataibiatik aldeantzik bidean ere.



Seinaleak adierazten duenetik aurrera, bariante azpiko pasabideraino itxita.

# Bergarako bi enpresa Bilboko Makina-Erramintaren Bienalean


Orni eta Tecnosistem, euren produktuak erakusten

**Gipuzkoako** 140 enpresa inguru bildu da Makina-Erramintaren Bienalaren 21. feriara. Bergarako Tecnosistem eta Orni ere izan dira bertan.


Martxoaren 13an, ireki zituen atek feriak eta aipatutako bi enpresa hauek bertan izango ditugu feria amaierara arte.

Ornik, lijatzeko makina errobotizatu eraman du feriarara. Inñaki Alberdi Orniko zuzendari komertzialak esandakoaren arabera, "ateen heldulekuak lijatzen dituen errobota". Bestalde, feriarara jende ugari hurbildu dela gaineratu du, "merkatua nahiko ondo doan seinale".

Tecnosistem-en kasuan, elektroerosioan aritzen dabatez ere, eta Bilbora "elektroerosioko makinek behar dituzten produktuak (grafitoa, kobrea...) ekarri ditugu" Asier Agirrebeñak azaldukoaren arabera. Bestalde azokak batez ere "norbere produktuak erakusteko" balio duela gehitu du.



Asier Agirrebeña, Tecnosistem enpresakoa Bilboko feriako stand-ean.



Orni-k, ateetako heldulekuak lijatzeko makina eraman du Bilbora.

## Iñigo Elkoro Garzonen zain eta Gaztelu gose greban

**Epaileak** ez du oraindik Iñigo Elkoroaren auzia aztertu. Familiak adierazitakoaren arabera, Garzonek Elkoroaren kasua eskuartean hauteskunde ostean izango zuela adierazi arren ez du oraindik horrelakorik egin. Dagoeneko hilabete darama Alcalá Mecon Garzonen erabakiaren zain. Bestalde, Jose Miguel Gaztelu presoak, hau ere Alcalán, gose greba hasi zuen joan zen eguakitzean.

## Pesaren geltokia bariantean

**Eibartik** Arrasaterako bidea zein alderantzizkoa egiten duen autobusak behin-behineko geltokia izango du bariantean, Kataibia kalearen gainean dagoen barianteko kurban. Arraioia, Ibargarai kalea itxi eta Santa Marina zein Poligonoko geltokiak kendu beharra izan da.

## Ibargarai lanak atzeratu egin dira

**Zurradero** kalea zuzalatu hasi eta gas hodiak aurkitu dituzte. Hodiak Zurraderoko lanak atzeratu dituzte eskabadorak hodiak apurtzeko arriskua dagoelako. Ondorioz, Ibargarai aurreikusita zegoen bezala astelehen goizean itxi bazen ere, eguerdirako zabaltzea erabaki zuen udalak. Berriz noiz itxi den ez dago jakiterik.

## Diputazioak iaz baino 8 milioi gehiago Udalari



**Urte fiskal ona** izan dela 1999a eta Bergarako udalak 8.729.346 pezeta gehiago jasoko ditu Diputazioetik. Orotara, 925 milioi pezeta banatuko die Gipuzkoako Foru Aldundiak probintziako udalei. Herri bakoitzak jasoko duen diru kopurua erabakitzeko, biztanle errolda hartzen du kontuan Diputazioak. Bestalde, udal bakoitza libre da dirua zertan erabili erabakitzeko.

# EAJ lehenengo indarra hauteskundeetan eta abstentzioak 20 puntutan egin du gora

**Normaltasun** osoz igaro zen martxoaren 12a, hauteskunde eguna gure herrian. 12.789 lagunek zuten botoa emateko aukera, eta 6.098 hurbildu ziren hautes-tontzietara. Abstenitu, beraz, 6.508 herritar egin ziren, %51, hain zuzen ere Debagoien osoan gertatu den antzera. Botoa ematera joan ez zirenen kopuruan kontuan hartu behar da, EHk abstentzioaren aldeko deia egin zuela.



Normaltasun osoz igaro zen martxoaren 12a, hauteskunde eguna.

## ABSTENTZIOAK 20 PUNTU GORA

1996. urteko Espainiako Gorteetarako hauteskundeak kontuan hartzen baditu-

gu, abstentzioa %31 izan zen; orain, beraz, abstentzioak 20 puntutan egin du gora.

Boto gehien jaso duen alderdia EAJ izan zen; 2.829 eskuratu zituen, botoen %45. Bigarren indarra EA al-

derdia izan zen; Eusko Alkartasunak 997 boto lortu zituen eta PSE-EEK oso emaitza paretsua izan zuen, 987 boto izan baitzituen. Bi alderdi hauek, jaitziera nabarmena izan dute 1996ko emaitzekin alderatuz. EA %21,9 jaitsi da eta PSE-EE %27,3.

PP alderdiaren kasuan, 983 boto izan ditu. Orain lau urteko hauteskundeetan 657 lortu zituen, % 49,6 igo du, beraz.

Boto gutxien jaso duen alderdia IU-EB izan da. 96an 480 eskuratu zituen, eta igandeko bozketan hauetatik 258 baino ez ditu mantendu.

## 2000ko hauteskunde orokorrak zonaldeka. Kongresurako emaitzak

Zonaldea	Hautesle errolda		Abstentzioa		EAJ		EA		PSOE		PP		IU-EB	
	1996	2000	1996	2000	1996	2000	1996	2000	1996	2000	1996	2000	1996	2000
ERDIALDEA	5701	<b>5.928</b>	%30,2	<b>%49</b>	1244	<b>385</b>	703	<b>578</b>	492	<b>381</b>	316	<b>441</b>	202	<b>116</b>
MATXIATEGI	3387	<b>3.232</b>	%30,7	<b>%49,9</b>	642	<b>687</b>	292	<b>189</b>	455	<b>335</b>	156	<b>299</b>	128	<b>63</b>
MARTOKO	2149	<b>2.167</b>	%32,3	<b>%51</b>	331	<b>413</b>	158	<b>127</b>	335	<b>231</b>	125	<b>189</b>	121	<b>62</b>
IBARRA	1031	<b>950</b>	%33,5	<b>%58,7</b>	197	<b>238</b>	89	<b>64</b>	57	<b>27</b>	41	<b>38</b>	22	<b>14</b>
OSINTXU	531	<b>512</b>	%32	<b>%62,6</b>	145	<b>106</b>	36	<b>39</b>	19	<b>16</b>	19	<b>16</b>	7	<b>3</b>
GUZTIRA	12799	<b>12.789</b>	%30,9	<b>%51</b>	2559	<b>2829</b>	1278	<b>997</b>	1358	<b>990</b>	657	<b>983</b>	480	<b>258</b>

## Estazioa botatzean irregulartasunak izan zirela salatu dute

**Trenaren** Euskal Museoren lagunen elkarteak irregulartasunak salatu ditu udalak geltoki zaharra bat batean botatzeko aukeratu zituen arrazoietan. Elkarteak esandakoaren arabera, hiru hilabete pasatu dira bota zutenetik eta "oraindik orube berean darraite obra-hondakinek".

Elkarteak gehitu duenez, Eusko Jaurlaritzako Patrimonio Kulturalaren Zuzendaritzako babeslokalako ondasunen zerrendan egon arren ere, geltokia bota egin zen joan zen abenduaren 17an. Orduan, ondarearen zainketan diharduten hainbat taldek mobilizazioak egin zituzten.



Abenduaren 17an bota zuten geltoki zaharra.

ARTXIBOA

# Berrigara

402 zenbakia.  
2000ko martxoaren 17a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefonoa: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.  
**Erredakzioa:** Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.  
**Harpidetzatzailea:** Itziar Kortabarria.  
**Testuen zuzenketa:** Alex Labaien, Mariipi Laskurain, Estepan Plazaola.  
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobezibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.  
**Komikiak:** Unai Azkarate, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.  
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate, Juan Mañtin Eltxepuru, Josu Okina.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara. Postaleko irudia:  
Benito Cantero, Jose Luis Feo.

Tirada: 5.300 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



## gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### SANTA KATALINA ERMITA ZUTIK NAHI DUGU

Bi milagarren urtea ez da ondo hasi kultura-ondarearentzat, Bergaran Erdi Aroko ermita bat erortzen hasi baita: Santa Katalina basiliza. Bergarako ermiten artean interesgarriena dela esatea ez da gehiegikeria. Izan ere, XV. eta XVI. mendeko hormen arkitekturaren aztarnak eta baserri giroko ermita batek bere burua jatzeko erabiltzen dituen zurezko sabai ikusgarriak ezberdintzen dute herriko beste ermita gehienetatik.

Baina hain interesgarria izan arren, badirudi Euskal Erkidegoko ondarearen ardua daukaten erakundeentzat ez duela aparteko erakargarritasunik. Ezin da ulertu bestela Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak horrenbeste urtetan behin behineko zerrendan edukitzea Santa Katalina bezalako elementuak. Kultur ondareaz arduratzen den departamentuaren profesionaltasuna zalantzan geratzen da. Ematen du alor honetako elementuak

behar den legez kalifikatu eta babestu beharrean beharrek jausten uzteko asmoa dagoela. Duela gutxi Bergarako beheko tren-geltokiarren kasuan gertatu den moduan.

Kultura sailak lan hau burutzeko giza baliabiderik ez badu, ordua da beste erakunde batzuetakoekin elkarlanean (Diputazioa eta udalakoekin), zerrendaturiko elementuak behin betiko kalifikatzeko.

Bestalde, erantzunkizunak erantzunkizun, Bergarako Udalarena ere aipatzekoa da: ondotox zekien ermita honek duen garrantzia, izan ere, eraikuntza hau eror ez zedin, negu bat pasatzeko apuntalatu egin baitzuen eta arau subsidiarioetan, "babes ertaina" duen elementu gisa izendatu. Horretaz gain, hamar urte pasatu badira ere, gogora dezagun bere egunean Diputazioak zazpi milioi pezetako subentzioa eman zuela ermita hau konpontzeko, Bergarako Udalak beste horrenbeste jartzeko baldintzarekin. Garai hartan Uda-



lak ez zuelako ezer egin, Diputazioak agindutako dirulaguntza bertan behera geratu zen. Eta orduan arazoari heldu ez zitzaielako, orain Santa Katalina erori egin zaigu.

Baina aurrera begiratu beharra dugu, eta pentsatu gure erakundeek badutela Santa Katalina ermita konpondu eta zutik iraunarazteko borondatea. Hau dela eta, ezinbestekotzat jotzen dugu, batetik Eusko Jaurlaritzak ermita behar bezala kalifikatzea, bestetik Gipuzkoako Foru Aldundiak bere egunean azaldu zuen konpromisoa berritzea, eta azkenik, Bergarako Udalak ere arazoaren konponbidean parte hartzea. Hartara, denon lanari esker Santa Katalina zutik eta egoki mantentzea lor dadin. Ez baita bidezkoa, jausi arte urteak pasatzen laga ondoren, holako ondasun publiko "ruina" gisa deklaratu eta atzetik eskabadorarekin desagertaraztea.


*Kapirixo  
Debagoieneko  
Kultur ondarea  
babesteko elkarte*

## tira biraka alex ugalde

Orain dela gutxira arte inork ez zeukan elefante banpiro hegalarri mitikoaren probarik.



Beste gol bat eta beste ospakizun berezi bat.



atrebentzia ezpada

bai, esan!

## Zer uste dozu PPK lortutako gehiengo absolutuari buruz? Uste dozu eraginik izango dabela Eukal Herrixan?



**Ramona Arribas**

Gure egoera ez dot uste gehixegi aldatuko danik, hala ere, ez dot politikaz asko ulertzen eta ezin dot bestelako iritzirik eman.



**Gema Balzategi**

Ez dot uste hemen aparteko eraginik izango dabenik, baina PPK horrenbeste boto jasotzia penia da.




**Angel Izuskiza**

Gure errua be bada, elkar ez ulertziagaittik. Euskaldunok batu egin biharko ga. Disparatia izango da, baiña Franko eta honek...



**Francisco Insausti**

Eragina izango dau. Oñ okerrago egongo ga. Errepresioa handixagoa izango da, eta presuendako ez da bape lagungarria izango.



**Javier Polvorinos**

Ez jataz emaitzak gustau. PPK nahi dabena egiteko aukeria dauka, eta guretako eragina izango dau, bakarik dago ta gobernatzeko.



**Arantxa Egaña**

Ez da nere gustoko emaitza izan PPK euki dabena. Nahi dabena egingo dabe. Lehen bestioak zeresanik bageunik; orain ezebe.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.  
Identifikazioa beharrezkoa.

### HAUTESKUNDE KANPAINAKO KARTELAK

**Antonio Gomezek** deitu digu hauteskunde kanpainako propagandaren inguruan salaketa egiteko. Antonio Gomezek dioenez, Udalak propaganda elektoral jartzeko panelak jartzen ditu herriko hainbat tokitan, baina panelok erabili beharreen, edozein lekutan eizeuden alderdien mezuak. Bestelako kartelekin Udalak horren zorrotz jokutzen badi, hauteskunde garaian beharrezko neurriak zergatik ez ote diren hartu galde-tu nahi du Gomezek. Ez zaio bidezkoa iruditzen alderdien aurkako zigorrak ez hartzea, Udalak orain dela urte batzuk kartelen kontua araututa laga eta gero. Antonio dioenaren arabera, herritarrei exenplu eskasa ematen diete gure politikariek.

**EDEL**  
TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan  
aukerarik haundiena  
eskaintzen dizugu*

Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltxak,  
edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**

ileapaindegia  
eder gela

— disdira —

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

*Ganbara*  
TABERNA

Heure erara  
ibiltzeko!

Irala 2/g. Tf. 943 76 55 75

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Irala 3  
Telefona:  
943 76 48 26



**IRRINTZI**  
k a f e t e g i a

**Arantza**  
Erlojutegia

Barrenkalea 4  
943 76 10 04

**AGOITZ**  
Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25  
BERGARA  
Tf.: 939 84 57 47

## adituen esanetan

## Artrosia

**A**rtrosia minusbaliotasun kausarik nagusia da 65 urtetik gorakoen artean. Adin horretatik aurrera, %65ak artrosia izaten du. Hain zuzen ere, arrisku faktoreetako bat adinarena da eta artrosia oso ohikoa da 50 urtetik gorako emakume zein gizonen artean. Kartilagoaren galtzea litzateke artrosia eta, horren ondorioz, hezurak hondatzen doaz progresiboki. Artrosia agertzeko arrazoiaren artean, hainbat kasutan ez da jakiten, berez sortzen da, eta horrez gain, badira artrosi sekundarioak, jaiotzetik izan dezakegun anormaltasun anatomiko baten erruz sortuak (mokorrean esaterako), traumatismo bategatik edo baita hainbat gaisotasunengatik ere (hezueria adibidez).

Esan bezala, arrisku faktoreen artean, adina, gizentasuna (mokorrek eta belaunek gehiegizko pisua jasan behar izaten dutenean), artikulazioetako le-



RICARDO PAGOAGA

Medikua

*"Kartilagoaren galtzea litzateke artrosia eta, horren ondorioz, hezurak hondatzen doaz progresiboki. Adina eta gizentasuna arrisku faktoreak dira"*

sioak eta gainkargak (zutik edota postura desegokietan lan egitean adibidez) aipa ditzakegu. Jeneralean bizkar hezurrean, mokorretan eta belaunetan agertzen dira artrosi arazoak. Sintomak, berriz, eboluzio geldoko mina artikulazioetan (artikulazioa mugitzean mina izaten dugu), artikulazioen zurruntasuna (goizez batez ere), mugimenduen gutxitzea eta, fase aurreratueta, artikulazioen handitzea eta zirtakatzea dira.

Tratamenduari dagokionez, gainkargak bastoia erabiliz ebitatu ditzakegu eta afektatutako zonan beroa aplikatzea ere ona da. Lehen etapan mina atsedenaekin joaten da baina beranduago deskantsatzen gaudenean ere mina izan dezakegu. Hasierako edo erdiko fasean analgesikoak gomendatzen dira eta, mina handituz badoa, antinflamatorioak. Oso fase aurreratueta zirurgia (protesiak) aplikatzen da, oso emaitza onekin gainera.



Artrosia oso ohikoa da 50 urtetik gorako emakume zein gizonen artean. ARTXIBOA

## bergarako errotrak

## BEKOERROTA edo IRUAZO ERROTA



**G**ipuzkoako Aldizkari Ofiziala. 1955:

*"Florencio Ruiz Bergarako bizilagunak, Iruauzo elkartearen izenean, adierazten du aipatutako elkarteak Angiozar errekekako urak erabiltzen dituela Bergarako lurretan dagoen Iruauzo errotan indarra sortzeko, eta erabilera hori Herri-Uren Aprobetxamenduen Erregistroan, 1901eko apirilaren 12ko Errege Dekretu bidez sortutakoan, inskribatzea nabi lukeela.*

*Eta hau gutzia jendeari jakinarazten zaio..."*

Auzokoek esan zigitenez (81/1/8) hasieran argindarra sortzeko eraiki zen eta gero, 1952an, jaso zutenek eurek errota bihurtu zuten, eurek erabiltzeko.

Angiozar errekekako urak erabiltzen zituen eta bi harri pare zituen, Eustakio Bilbao bilbotarrak egindako burdinazko bi turtukik eragiten ziotenak.

Harriak pikatzea, berriz, Florencio Ruizek egiten zuen. Bazkideek beren beharretarako erabiltzen zuten.

KOKAPENA: Errota baserria baino 200 metro beheiago.

Antxon Agirre Sorondo



## Hegoamerikar taldea

**Nikaragua, Chiapas, Peru, Guatemala, Ecuador eta Kolombiako zortzi lagun** ditugu gure artean. Martxo hasieran etorri ziren eta amaiera arte egongo dira, bien bitartean Mariaren Lagundiko egoitzan daude. Mundukide Fundazioak gonbidatuta Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako fakultatean daude eskolak hartzen. Hainbat kultur bisita ere egin dituzte bailaran. Helburua, euren hemengo esperientzietatik eta geuk eurenetatik ikastea da.




## Txotx bai, baina euskaraz

Euskara euskaltegian ikasi bai, baina hortik kanpo egin ere egin behar dela ondtxo dakite **AEKko ikasle hauek**. Begira bestela nolako irteerak egiten dituzten irakasleekin batera. Otsailaren 26an Aramaioko Iturrieta **sagardotegian** izan ziren eta horren ondo pasatu ondoren, noiz errepikatuko zain daude.

## San Pedro elizan gora eta behera

**San Pedro** eliza garbitzen aritu dira egunotan hainbat langile: zuhaitzetatik eroritako **arramak** kendu, arriskua sor lezakeen **harri solterik** dagoen begiratu... Ez pentsa lan makala izan denik, izan ere, dorrea horren luzea izanik, eskalatzaileak bailiran hor jardun dute sokak gerrian lotu eta dorrean gora eta behera.



# Bergarak baditu bere souvenirrak

## Souvenirren falta sumatu eta Bedelkarrek martxan jarri du ekimen hau

**Jakina da azkenengo urteetan izugarri egin duela gora turismoak gure herrian. Iaz, duela bi urte baino dezente turista gehiago izan genituen bisitari Bergaran, eta turismo bulegoko arduradunek kontsulta ugari izan zituzten. Turistek faltan sumatu zutena, Bergararen oroigarri gisa euren herrietara eramateko souvenirrak ziren. Horregatik, Bedelkarrek hartu zuen oroigarriok kaleratzeko ardura.**

**B**ergarako Turismo Bulego-ko datuen arabera, iazko udan izugarritzko gorakada izan zuen turismoak gure herrian. Duela bi urte 1.308 kontsulta jaso bazituen turismo bulegoak, iazko udan 2.310 izan ziren turistek bertan egindako kontsultak. Era berean, bisita gidatuetan ere igoera nabarmena izan zen, duela bi urte 19 izan baitziren, eta 141, berriz, iazko udan.

Uda amaieran, turismo bulegoko eta Udaleko Turismo arduradunen balantzea oso positiboa izan zen arren, bazeuden zenbait hutsune, tartean souvenirren falta nabaritu baitzen.

### SOUVENIRREN BEHARRA

Turismo bulegora hurbiltzen ziren turista askok eta askok, souvenirrak erosi nahi eta aurkitzen ez zituztenez, bertako arduradunengana jotzen zuten. Normala den bezala, oporretan ezagutu ditugun tokietako oroigarriak geurekin eramateko gustatzen baitzaigu, eta kasu honetan, Bergarako oroigarriren bat eraman nahi baitzuten turistek beraien etxetara. Erantzuna, ez dagoela horrelakorik. Udala, beraz, hutsune horretaz ohartu zen, hots, Bergarako souvenir edo oroigarrien faltaz. Baina noski, Udalak berak ezin zuen ekimen hau martxan jarri, souvenirrena azken finean, negozio bat delako. Beraz, Bedelkar elkarteak bere egin zuen ekimena, eta laster jarriko dira salgai Bergarako

oroigarri edo souvenirrak. Hala ere, Bedelkarreko kideen esanetan, Udalaren babes eta laguntza osoa izan dute uneoro.

Joan zen eguakitzean, hilaren 10ean, Kultur Etxean egin zuen Bedelkarrek oroigarri hauen aurkezpen ekitaldia, eta bertan izan ziren Julen Narbaiza Bedelkarreko presidentea, Xabier Aranburu museologoa, uneoro bere laguntza izan baitute Bedelkarrekoek, eta baita Bergarako beste dendari batzuk ere. Narbaizak esan zuenez, "gure asmoa ekimen hau martxan jartzea da, eta behin martxan jarrita, gure helburua da dendariak beraiek hartzea lekukoa eta bere egin dezatela ekimena".

### KAMISETAK, POSTALAK ETA ZERAMIKA

Hasiera batean behintzat, kamisetak, postalak eta zeramika jarriko dira salgai. Kamisetek hain famatua den Bergarako balkoia, edo zehatzago esanda, Arrese dorretxeko balkoia irudia daramate, eta baita "Bergara" izeneko logoa ere. Mangamotzak dira, eta kolore eta mota ezberdinetakoak dira: urdinak, grisak, beltzak, zuriak... Kamiseta hauen diseinua Alex Azkarate diseinatzailerak egin du.

Postalei dagokienez, berriz, oraingoz bederatzita postal jarri dituzte salgai. Postaletako argazki gehienak Benito Canterok eginikoak dira, baina badira Jose Agustin Gurrutxaga eta Jose Luis Feo argazkilarienak ere. Esan bezala,





Bedelkarrek hartu du Bergarako souvenirrak kaleratzeko ardura eta joan zen eguakitzean Kultur Etxean egin zuten aurkezpen ekitaldia. Argazkian, Xabier Mujika, Julen Narbaiza eta Benito Cantero.

Eskuman, kamisetetan azaltzen den Bergarako logoa.

ekimena berez, Bedelkarrek martxan jarri duen arren, Udalaren laguntza izan dute, eta Xabier Aranburu museologoa-rena bereziki. Bera arduratu zen postaletako motiboak aukeratzen, zerrenda bat egin baitzuen, eta hortik aukeraketa bat egin ostean, bederatzi argazki dira azkenean postaletan ikus ditzakegunak. Eta Xabier Aranburu izan da era berean, postaletan, argazkian ikus daitekeenaren azalpena idazteaz arduratu dena ere.

Argazkien aukeraketa hori egiteko, Bergarako toki esanguratsuenen hautaketa bat eginen saiatu dira. "Argazki pila bat ikusi genituen, eta azkenean hauek izan ziren aukeratu genituenak: Agarreko garaia, Errekalde jauregia, Eginomallea jauregia, San Pedro parrokia eta Olaso dorretxea, Arreseko balkoia, San Pedroko elizpea eta Santa Marinako parrokia, Marutegi edo Agirrebeñako Karlos V.aren irudia eta Seminarioa.

Hala ere, hasiera batean 11 postal kaleratzeko asmoa zuten. Beraz, beste bi postal falta dira, eguakitzeko aurkez-

penean Bedelkarreko kideek azaldu zuten: San Pedroko kristoa eta Santa Marinako erretaularena hain zuzen ere, ez baitute Gotzaitegiaren baimenik lortu.

Zeramikari dagokionez, Bergarako jatorrizko zeramikaren inguruan zeozer ba ote zen bila aritu omen ziren Bedelkarrekoak, baina badirudi ez dagoela gure herrian zeramika tradizioirik. Beraz, euskal zeramikan lan egiten duen Blanca Gomez de Segura gasteiztararengana jo zuten, eta bera izan da oroi-garriok egin dituenak. Guztira, bost pieza ezberdin egin ditu Bergaran souvenir bezala saltzeko: lau plater ezberdin, eta txakolin pitxarrak. Zeramikok kaxa banatan salduko dira eta txarteltxo bat eramango dute beraiekin batera. Bertan, euskaraz eta gazteleraz, Bergarako historiaren laburpen txiki bat eta euskal zeramikaren inguruko azalpenak biltzen dituzten bi testu aurkituko ditu turistak. Bergarako historiari buruzko testua, Xabier Aranburu museologoa eginitako testu batean oinarritutako laburpen bat dela esan behar da. Eta euskal zeramikari buruzkoa, berriz, Blanca Gomez de Segurak berak eginitakoa.

#### **SALMENTA PUNTUAK ZEHAZTU GABE**

Julen Narbaizak aurkezpenean azaldu zuenez, souvenir guzti hauek datorren astean salgai jartzea espero dute. Bedelkarreko kideen lehendabiziko lana, herriko komertzioetako arduradunei ekimen honen berri ematea da, eta mo-



**Datorren astetik aurrera egongo dira salgai kamiseta, postal eta zeramikak Bergarako denda, hotel etabarretan.**



mentu honetan zeregin horretan dihardute hain zuzen ere. Gero, interesa duten guztiek izango dute produktu hauek salmentan jartzeko aukera, bai Bedelkarreko kideak direnek, eta baita ez direnek ere. Printzipioz, denda, hotel, jatetxe, kafetegi eta bestelakoetan aurkitu ahal izango dira. Produktu bakoitzak bere salmenta puntuak izango dituela uste dute antolatzaileek, bakoitzaren berezitasunak medio. Hau da, postalak, estanku, taberna, liburudenda eta horrelakoetan saldu daitezke, eta baita hoteletan eta jatetxeetan ere. Kamisetak, berriz, hotel eta erropa dendetan besteak beste. Eta zeramika, be-

rriz, opari dendetan adibidez, baina baita interesa azaltzen duten bestelako saltokietan ere. Julen Narbaiza Bedelkarreko presidentearen esanetan, "dendari bakoitzak erabaki beharko du souvenir hauek saldu nahi dituen, eta zeintzu interesatzen zaizkion salgai jartzea".

Bestalde, Erramu zapatuan ere, apirilaren 15ean, mahai bat jarriko dute Bedelkarrekoek, herrian souvenir hauek ezagutzera eman eta saltzeko asmoz. Egun aproposa iruditu zaie Erramu zapatua, jende ugari ibiltzen baita egun horretan herrian, bai bergararrak eta baita kanpotik etorritako jendea ere.


Bestalde, Turismo Bulegoan ere souvenirren muestrario bat egongo da, eta oraindik zehaztu gabe dagoen arren, bertan ez dira souvenirrok salduko. Beraz, muestrario bat besterik ez da izango, eta bertaratzen direnei oroigarriok non erosi ditzaketan azalduko zaie.

Souvenirrak soilik salduko lituzkeen denda berezi bat jartzearen ideia alde batera laga zuten hasieratik, beste herri batzuetan eginiko esperientziak negatiboak izan baitira. Oñatin adibidez, honelako denda bat jarri zuten, baina ez zuen ondo funtzionatu eta sei hilabetetara itxi egin behar izan zuten.<

---


**Erramu zapatuan  
souvenirrak ezagutzera  
eman eta saltzeko  
mahai bat jarriko dute  
Bedelkarrekoek**

---





GASTON Y DANIELA




Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37

**BERGARA**

Inglesina



Banatzaile ofiziala



Martxoaren 19a, San Jose eguna

**Aitaren eguneko  
opariak, Agirren**



AGIRRE JANTZIDENDA 943 76 72 67 Bidekurutzeta 18

## Gorlako txirrindulari igoera jokatuko da domekan

### Afizionatuetan 150 partaide inguru izango dira

Gorlako txirrindulari igoeraren XXVI. edizioa izango da domekan jokatuko dena. Ohizkoa den moduan afizionatuen eta beteranoen probak izango dira.

Lehenbizi, eguerdiko 12etan, beteranoen probari hasiera emango zaio San Martin Plazan. Antolatzaileen arabera, 35 txirrindulari inguruk hartuko dute parte beteranoen lasterketan. Ibilbidea ohizkoa izango da eta partaideek Gorlako igoera gogorari ekin beharko diote, zortzi kilometro eta erdiko luzerakoa eta Elorriaga eta Amesti bitartean %8,5eko maldak dituena. Beteranoen artean, Gorlan bost aldiz garaile izan den Jose E. Fernandez asturiarra izango da faborito nagusie-



Argazkian, Garate joan zen edizioan nagusitu zeneko irudia.

netako bat. Berak du beteranoen arteko denborarik onena, duela bi urte egindakoa (24 minutu eta 12 segundu). Ricardo Iturbe bergararrak ere bere aukerak izan ditzake domekan.

Afizionatuei dagokienez, 150 txirrindulari izango

dira San Martin plazako irteeran eta faboritoez hitzegtuta oso zaila da denboraldi hasieran. Azken bi ediziotan ari den Juan Manuel Garatek irabazi zuen Gorlan eta 1998an igoerako errekorra lortu zuen, 20 minutu eta 33

### Azken hamarkadako irabazleak afizionatuetan

1990	Xabier Lazpiur	.....21'20"
1991	Alfredo Irueta	.....21'09"
1992	Iñigo Cuesta	.....*21'20"
1993	Julian Barcina	.....*20'36"
1994	Santi Blanco	.....*20'33"
1995	Klaus Möller	.....20'21"
1996	Joseba Arregi	.....21'21"
1997	Carlos Sastre	.....20'59"
1998	Juan Manuel Garate	..20'33"
1999	Juan Manuel Garate	..21'11"

\*Ibilbide ezberdinarekin

segundu behar izan zituen eta helmugara iristeko.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, goizeko 11etan Gorlarako bidea itxi egingo da edozein ibilgailurentzat. Afizionatuen proba bukatutakoan, sari banaketa egingo da helmugan.

## Bi bergarar beteranoetan

Ricardo Iturbek eta Alatz Larrañagak beteranoen proban hartuko dute parte domekan. Ricardo Iturbe (34 urte) Tuterako Goerna taldean ari da aurten eta gaztetan primerako txirrindularia omen zetorren, bizkarreko arazoak izan zituen arte. Bizikleta laga behar izan zuen 22 urterekin, Lokatzen eta Orbean korritu ondoren. Espainiako selekzioarekin ere aritu zen behin baino gehiagotan. Duela bi urte bizikletan ibiltzeari ekin zion berriz ere eta domekan, esan bezala, irteeran izango da. Duela bi urte korritu zuen lehen aldiz Gorlan eta orduan laugarren postuan sailkatu zen.

Dagoeneko 2.000 kilometro egin ditu aurten eta berak adierazi digunez, "Gorlako igoera ez da probarik egokiena nire ezaugarrietarako, oso igoera esplosiboa delako eta ni baino txirrindulari arinagoak izango direlako irteeran. Dena den, nire helburua lehendabiziko bosten barruan sartzea da. Inguruan beteranoentzako dagoen proba bakarra da Gorlako eta herrian korritzea ere beti da motibagarria".



Ricardo Iturbe.



Alatz Larrañaga.

Bestalde, Alatz Larrañagak (29 urte) lehenbizikoz korrituko du domekan. Joan zen zapatuan Izkuen (Nafarroan) denboraldiko lehenbiziko proba korritu zuen, 96 kilometrokoa. Aurten 2.500 kilometro egin ditu jadanik eta domekan bukatzearekin konformatzen dela diosku; "aldapan gora lauan baino hobeto nabil baina igoera gogorra da Gorlako, batez ere irteeratik Ugarrixa tarteraino. 26 minutuko denbora egingo banu, pozik. Ikusi egin behar".

# Kiroldegiko tenis pista berria inauguratuko da bihar

Bihar, zapatua, Kiroldegiko tenis pista berria inauguratuko da. Ekitaldien hasiera goizeko 10etan izango da eta inaugurazio ofiziala ordubete beranduago, 11etan. Ondoren, Ainhoa Zumalde oñatiarra eta Ana Podaca gasteztarraren arteko partidua jokatu da. Partidua bukatu ondoren, luntxa banatuko da.

Tenissinco enpresa katalanak egin ditu tenis pista berriko lanak. Proiektuak 8 milioi pezeta inguruko aurrekontua izan du eta azken urteotan Udaletxean jasotako hainbat teniszalaren eskariari erantzuna eman nahi izan dio Kirol Zerbitzuak tenis pista iraunkorra egitean. Pista berriak 35x17,5 metroko eremua beteko du eta kantxa inguratzeko lau metro inguruko hesi metalikoa jarri da.



Aste honetan amaitu dira tenis pista berriko lanak.

## TENIS TXAPELKETA

Udaleko Kirol Zerbitzuak 14 urtetik gorakoei zuzendutako tenis txapelketa antolatuko du martxoaren 25etik apirilaren 30era. Izena emateko epea asteazkenean, hilaren 22an, eguerdiko ordu-

batean bukatuko da. Debagoienerako kirol zerbitzueta-ko bazkideek 1.500 pezeta-ko kuota ordaindu beharko dute eta gainontzekoek, berriz, 2.000 pezeta. Argibide gehiago Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefonoan.

## Bergara-Hernani Agorrosinen

**Bergarak** Hernaniren bisita jasoko du bihar, zapatua, 16:45etatik aurrera Agorrosinen. Partidua Klubaren Laguntzarako Egunerdia izendatu du zuzendaritzak. Beraz, bazkideek ere sarreraren erdia ordaindu beharko dute.

## Eskiatzera joateko irteerak

**Pol-Pol** Mendizale Taldeak apirilaren 21etik 29ra Deux Alpesera joateko eski irteera antolatuko du. Argibide gehiago asteleheneetatik ostegunetara, arratsaldeko 19:00etatik 20:30etara Pol-Poleko bulegoan edo 943 76 48 51 zenbakian.

## Mendi irteera Arano-Adarrara

**Alpino Gorlak** eta Pol-Pol Mendizale Taldeak Arano-Adarrara joateko egun osoko mendi irteera iragarri dute datorren domekarako, martxoak 26. Irteera goizeko 7etan egingo da Frontoitik. Txartelak Pol-Pol tabernan salgai.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

#### Bergara-Hernani

Hirugarren maila  
Zapatua. 16:45. Agorrosin

#### Bergara-Aldapetarrak

Lehen mailako kadeteak  
Zapatua. 18:30. Ipintza

#### Bergara-Amaikak Bat

Neskak  
Domeka. 10:00. Ipintza

#### Bergara-Ilintxa

2. mailako jubenilak  
Domeka. 11:30. Ipintza

### ESKUBALOIA

#### Bergara-Arrasate

Jubenil mutilak  
Zapatua. 16:15. Kiroldegia

#### Bergara-Arrate

Senior mutilak  
Zapatua. 17:45. Kiroldegia

#### Bergara-Hondarribia

Kadete mutilak  
Domeka. 9:30. Kiroldegia

#### Bergara-Hernani

Jubenil neskek  
Domeka. 11:00. Kiroldegia

### ARETO FUTBOLA

#### Bergara-Opel Arregi

Senior mutilak  
Gaur, eguakitza, 22:30etan.  
Kiroldegia

#### Bergara-Goierrri B

Senior neskek  
Domeka. 12:30. Kiroldegia

### PILOTA

Udaberriko Txapelketaren finala domekan, 10:00etan, Udal Pilotalekuan.

#### Euskal Jolas 1-Euskal Jolas 2

(Deba). 2. mailako jubenilak.

#### Tolosa-Beasain.

Lehen mailako jubenilak.

#### Zumarraga-Eskoriatza.

Bigarren mailako seniorrak.

#### Azpeitia-Azkoitia.

Lehen mailako seniorrak.

A  
R  
R  
A  
N  
O



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA



**KORTA-ZAR**  
**Txokolategia**

*Pintxo eta ogibitartekoen  
espezialitatea*

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

**ARREGI**

**Eraikuntza  
materialak**

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.  
Tf. 943 76 27 93



# Labegaraietako futbito txapelketa

## PARTIDUAK

### ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Patatus-Amilotx	Xurruapak
10:00: Xurruapak-Torrekua	Amilotx
11:00: Mo(ko)lotov-Moskis	Patxaran T.
12:00: Patxaran T.-K. Piperrak	Moskis
19:00: Ion Autoak-Amoskibar	Antolaketa
20:00: Agirrebeña-Etengabe	Ion Autoak

### DOMEKA BARRUAN

16:00: Errotagain-Azpeitxi	Antolaketa
17:00: Vacalouras-La Juve	Ufala
18:00: Ufala-Aterpe	Bayer
19:00: Bayer-Irubide jatetxea	Antolaketa
20:00: Sirimiri-Ortzi	Antolaketa

## ARGI!

Uve Bikoitza, Amilotx eta Soropotroak taldeei hiru puntu kendu eta partidua galdutzat eman zaie ez aurkezteagatik. Bestalde, kopa txapelketako zozketa martitzean, hilak 21, 18:00etan egingo da.

**Informazio hau babesle hauei esker:**

## SAILKAPENAK

### A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	49	18
2. Irubide Jatetxea	35	18
3. Azpeitxi Jatetxea	31	18
4. Sirimiri Eri	30	18
5. Pinturas Bergara	25	18
6. Ari Ari	20	18
7. Etengabe	18	18
8. Mo(ko)lotov	13	18
9. Moskis	10	18
10. La Juve	9	18

### B multzoa

	P	J
1. Bayer	45	18
2. Mongatxurak	40	18
3. Amoskibar	37	18
4. Urrutxurtu	32	18
5. Bildurbarek Opel Lam	22	18
6. Tom Cat Argandolas	18	18
7. Patxaran Team	18	18
8. Agirrebeña Jatetxea	14	18
9. Amilotx	13	18
10. Patatus	1	18

### C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	46	18
2. Ortzi	39	18
3. Shaktale	37	18
4. Ion Autoak	25	18
5. Buya	23	18
6. Uve Bikoitza	20	18
7. Vacalouras	14	18
8. Soropotroak	13	18
9. Agiñazpi	10	18
10. Torrekua	10	18

## EMAITZAK

### A MULTZOA

Etengabe-Irubide jatetxea	3-5
Mo(ko)lotov-Sirimiri Eri	3-5

### B MULTZOA

Urrutxurtu-Agirrebeña jatetxea	7-5
Bildurbarek Opel Lam-Patatus	9-2
Bayer-Amilotx	3-0
Mongatxurak-Amoskibar	7-5

### C MULTZOA

Shaktale-Vacalouras	2-1
Torrekua-Uve Bikoitza	3-0
Ortzi-Ion Autoak	0-7
A Ze Flaxa Etxagi-Soropotroak	3-0

### D MULTZOA

Buya-Agiñazpi	3-0
Fac-Guadalest	4-7
Txipiron-Aterpe	8-2
Ufala-Artusamak	0-17
Xurruapak-Bar Canalejas	1-3

### D multzoa

	P	J
1. Errotagain	47	18
2. Guadalest	40	18
3. Bar Canalejas	38	18
4. Fac	35	18
5. Artusamak	34	18
6. Txipiron	23	18
7. Xurruapak	22	18
8. Komando Piperrak	7	18
9. Ufala	4	18
10. Aterpe	2	18

## mahoneroak




**SALVA IRIARTE**  
Realeko entrenatzailea

Ez zen partidu ikusgarria izan zapatuan Bergarak eta Realak Anoetan jokaturakoa eta, hiru puntuak kostata eskuratu genituen. Aurten-go denboraldian bi partidutan irabazi diogu Bergarari baina bai Agorrosinon eta bai Anoetan mahoneroak gaintzea ez da erraza izan. Zapatuan ere estu ibili ginen, batez ere azken orduerdian, epaileak Larribide kanporatu eta jokalaria bat gutxiagorekin jokatu behar izan genuen.

Bigarren zatiaeren hasieran partiduko gol bakarra egin genuen baina Bergarak izan zituen partidua berdintzeko aukerak. Guk, beriz, partiduko azken minutuetan ere kontraerasoan arriskua sortu genuen baina ez genuen aldea handituzerik izan. Bi taldeetako atezainek oso ondo jokatu zuten. Bergara asko borrokatzen duen taldea da baina beharbada erasoko jokaldiak behar bezala amaitzea falta zaio, aukerak sortzen ditu eta. Poztuko nintzateke kategoriarik eutsiko balio.

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



San Pedro 21 Zubillaga z/g  
BERGARA OÑATI  
943 76 20 49 943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza  
2A behea ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19

## talde federatuen emaitzak

### FUTBOLA

Real Sociedad B 1; Bergara 0  
3. maila  
Bergara 4; Amaiak Bat 0  
Lehen mailako jubenilak  
Bergara 2; Luberi 1  
Bigarren mailako jubenilak  
Bergara 5; Mariño 0  
Ohorezko kadeteak  
Zestoa 4; Bergara 1  
Kadeteak

### Bergara 0; La Salle 0

Infantilak  
Almen 1; Bergara 3  
Neskak  
ARETO FUTBOLA  
Lagunak 3; Aloña Mendi 8  
Jubenil mutilak  
Billabona 5; Bergara 5  
Senior neskak  
Plazaberri 1; Bergara 4  
Senior mutilak

### SASKIBALOIA

Bergara 52; Intxaurren 44  
Senior neskak  
Bergara 65; Santo Tomas Lizeoa 62  
Senior mutilak  
Bergara 38; Zarauz 58  
Kadete mutilak  
ESKUBALOIA  
Bergara 23; Aierru 23  
Senior mutilak

### Arrasate 10; Bergara 16

Kadete mutilak  
Legazpia 7; Bergara 17  
Jubenil neskak  
Legazpia 13; Bergara 2  
Kadete neskak  
PILOTA  
Bergara 2; Eskoriatza 0  
Deba Arroko Txapelketa  
(jubeniletan 22-9 eta seniorretan 22-17)



Sailkapen orokorra:  
Josetxo Lizarralde . . . . . 9 puntu  
Oxel Apraiz . . . . . 8 puntu  
Jokin Mendaratz . . . . . 8 puntu  
Etor Laskurain . . . . . 7 puntu  
Markel Egaña . . . . . 7 puntu  
Gorka Dueñas . . . . . 7 puntu  
Etxeko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.

kronika deba arroko pilota txapelketa

## Bergararrak bide onetik

**BERGARA** 2

**ESKORIATZA** 0

Joseba Orgaz-Joseba Herran 22; Ibai Gracia-Ion Mata 9 (jubenilak). Partzialak: 10-1, 16-7, 20-8, 21-9. Ander Muguruza-Igor Gutierrez 22; Asier Heriz-Jesus Dominguez 17. Partzialak: 7-0, 11-2, 18-9, 21-15.

Joaneko partiduetan moduan, Bergarako pilotariak eskoriatzarrei nagusitu zitzaizen martitzenean Udal Pilotalekuan jokaturako partiduetan. Asier Larrañaga eta Beñat Iñarra bergarar kadeteek ez zuten jokatzetik izan, Eskoriatzako taldeak kategoria horretan bikoterik ez duelako. Dena den, kadeteek ez dute aukerarik



Argazkian, Gutierrez eta Muguruza, Reyes Azkoitia entrenatzailearekin.

finalerdietarako sailkatzeko, orain arte jokaturako lau partiduetan galdu dituztelako. Reyes Azkoitia entrenatzailearen arabera ikasi eta pilotan gozatzeko esperientzia baliogarria izango zaie.

Bestalde, jubenilek eta seniorrek Deba Arroko txapelketan aurrera egiteko aukerak dituzte eta hala erakutsi zuten martitzenean. Orgazek eta Herranek garaipean erraza lortu zuten eskoriatzarren aurka. Belaunean mina duela eta, Joseba Orgazek Julen Aranburu ordezkatu zuen astearteko partiduan eta lan ona egin zuten. Hala ere, Herran izan genuen partiduko jaun eta jabe. Jubenilek partidu bakarra galdu dute orain arte, Oñatiko bikotearen aurka eta Antzuolako bikoteari irabazi ondoren, antzuolarrarekin batera sailkapeneko liderrak ditugu.

partiduan eta lan ona egin zuten. Hala ere, Herran izan genuen partiduko jaun eta jabe. Jubenilek partidu bakarra galdu dute orain arte, Oñatiko bikotearen aurka eta Antzuolako bikoteari irabazi ondoren, antzuolarrarekin batera sailkapeneko liderrak ditugu.

Azkenik, seniorrei dago kienez, bergarar bikoteak bi partidu galdu (Arrasate eta Aretxabaletaren kontra) eta gainontzeko bostak irabazi egin ditu. Datorren astean Arrasateren aurka jokaturako dute Uarkapen eta garaipean lortzea beharrezkoa zaie bergararrei, ahal bada Bergaran izandako kontrako emaitza gaintuz gainera. Martitzeneko partiduan guttiz konfiatuta kantxaratu ziren eta markagailuan alde nabarmena lortu ondoren, Eskoriatzak aldea murriztea lortu zuen (13-8). Azkenean etxekoan erreakzioa lortu zuen eta tantu bikainak ere ikusi ahal izan genituen Muguruzaaren partetik: 18-9koa dejada bikain batekin eta 20-12koa pilota zabalera eramanez. Azkenean bergararrak nagusitu ziren, ikusleentzako gozamenerako.

### MARKEL CESTAFE / Trialsin zalea

## "Bizikletan teknikak du inportantzia gehien"

Joan zen domekan amaitu zen Zarautzen eskolarteko trialsin txapelketa. Alebin kategorian Markel Cestafe (11 urte) izan genuen herriko onena (9. postuan), Joseba Muguruza, Jon Yera eta losu Albenizen aurretik.

**G.** Zer moduz joan da txapelketa?

**E.** Ondo. Zazpi probetatik, Zarautzekoa kenduta, beste guztietan parte hartu dut. Posturik onena Zegamakoan lortu nuen, bosgarren geratu bainintzen. Besteetan hamargarren postuaren inguruan ibili naiz. Partaideak? 40 inguru ibili gara eta nik 9 puntu lortu ditut.

**G.** Abilidade handia beharko da

bizikletarekin ibilbideko oztopak gaintzeko.

**E.** Bai. Indarrak baino teknikak garrantzi handiagoa dauka eta batzuetan ez da erraza izaten ekilibrioa mantentzea. Dena den, niri oztopo askoko ibilbideak gustatzen zaizkit gehien.

**G.** Jausteko beldurrik ez?

**E.** Ez. Kaskoarekin ibiltzen gara eta ez zait tokatu kolpe handirik hartzea.

**G.** Zeintzuk izan dira zirkuituko probarik zailena eta nekezena?

**E.** Beharba-

da Arantzazun jokatu zena izango zen zailena eta errazena Arrasaten, Udalan, izan genuena.

**G.** Zelako bizikleta erabiltzen duzu?

**E.** Txikia, trial egiteko erabiltzen direnak.

**G.** Asko entrenatzen zara?

**E.** Bueno, lagunekin eta gustatzen zait bizikletan ibiltzea.

**G.** Beste kirolik egiten duzu?

**E.** Futbola. Baina nahiko txarra naiz. Aurrean jokatu arren, gol gutxi sartzen dut.



**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Pisu txiki bat salgai.  
Etxabea. 943 76 60 20  
(gauez).

Antzuolan, Eguzki  
auzoan. 943 76 64 47.

Pisua Fraiskozurin,  
ganbararekin. 103 m<sup>2</sup>.  
943 76 49 56.

Zubiaurre. 943 76 23 93.

Pisua salgai Zubietan.  
Deitu 943 76 12 61  
telefonora

Pisua salgai Antzuolan.  
943 61 29 17/ 63 52 63  
(Rakel).

**EROSI**

Bergaran etxea erosiko  
genuke. 943 21 99 02.

Etxebizitza erosiko nuke  
Bergaran. 943 76 09 99.

Etxea erosiko nuke  
Benidormen; aukeran,  
3 logeladuna eta itsaso  
ondoan. 943 76 24 54.

**ERRENTAN EMATEKO**

Bungalow bat Torrevie-  
jan, udan. Hondartzatik  
gertu. 943 78 14 72.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.  
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**  
Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**  
Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

**ETXE KONPARTITUAK**

Pisua konpartituko nuke.  
Deitu 667 52 48 98  
telefonora (Andres).

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Antzuolan, Zurrategin.  
Deitu 943 76 64 00  
telefonora.

Bolu. 2 plaza.  
616 049 865.

Antzuola, Kalegoi.  
943 76 47 16.

Masterreka (Pertxa  
azpian). 696 460 406.

Ozaeta. 943 76 73 00.

Garajea salgai Bolun.  
Deitu 943 76 19 69  
telefonora.

Garajea salgai edo alo-  
kairuan. 943 76 22 22.

Ibargara. 1.500.000 PTA.  
Deitu 943 76 72 17  
telefonora.

**ERRENTAN EMATEKO**

Garajea alokairuan Zu-

biaurren. 943 76 23 53.

S. Marina. 943 76 41 88.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Zubiaurren garajea har-  
tuko nuke. 943 76 08 26.

**3. LOKALAK**

**SALDU**

Zubiaurren. 100 m<sup>2</sup>.  
13,5 milioi. 943 76 11 13.

Etxabe komertziala sal-  
gai edo alokairuan Ara-

nerrekan. 943 76 32 00.

**EROSI**

Lokal komertziala erosi  
nahi nuke S. Lorentzon.  
300 m<sup>2</sup> . 607 82 53 06.

**ERRENTAN EMATEKO**

Bolun (100 m<sup>2</sup>) eta  
Arruriagan (18m<sup>2</sup>)  
lokalk alokairuan.  
606 96 23 80.

Mugertzako gainean  
35 m<sup>2</sup>ko lokala alokai-  
ruan. 943 76 21 49.

Lokala alokairuan Mar-  
tokon. 943 76 11 13.

**4. LANA**

**ESKAITZAK**

Neska, administrari la-  
netarako eta ordenado-  
rez informeak pasatze-  
ko gertu. 943 76 73 11  
(Garbiñe).

Emakume batek edade-  
tuak eta gaixoak zaindu-  
ko litzuke. 943 76 04 57.

Etxeko lanak, umeak  
zaindu edo dendari  
lanak. 636 76 25 70.

Emakumeak etxeak  
garbitu eta edadetuak  
zaindu. 943 76 09 33.

Etxeko lanak, haurrak  
zaindu edo dendari lanak.  
943 76 60 56 (Joana).

22 urteko mutilak lan  
egingo luke zapatuetan  
(baserri lanak, e.a.).  
943 78 26 77 (Arkaitz).

Etxeko lanak edo plan-  
txa orduka. 943 76 54 82.

Neska euskalduna goi-  
zez lan egiteko gertu.  
943 76 23 41.

Txoferra lanerako prest,  
C eta C-1 gidabaimena  
eta garraioetarakoa

**Tabernarako  
ZERBITZARIA  
behar da**

**943 76 59 19**

**ILEAPAINZAILEA  
behar dugu**

**943 79 58 78**



**SEGUROS LAGUN ARO  
ASEGURUAK**

**AGENTEA**

Ramon Maria Lili 6, behea  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54  
Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenerik ostiralera:  
9.00-14.00 eta 16.00-20.00  
Larunbatetan: 9.00-13.00

**IRAEGI  
ASEGURUAK**

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49



dituena. 943 76 30 34.

Klinika laguntzaileak gaixoak edo zaharrak zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis).

Neska bat goizez garbi-ketak egiteko gertu. 943 76 38 73.

Neska lanerako gertu. 943 76 00 90.

Neska goizez lan egiteko gertu. 943 76 57 81.

**ESKAERAK**

Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 76 05 55.

Pertsona bat behar da goizero 2 orduz umea zaintzeko. 943 76 14 54.

Neska behar da etxeko lanak eta umeak zaintzeko. 943 76 01 57.

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAITZAK**

9-13 urtekoei mate, ingeles, e.a. ematen dizkiet. 943 76 33 68 (Maite).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

**ESKAERAK**

UBlko matematika klaseak hartuko nituzke. 943 76 33 23.

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

VW Passat 1.6. SS-T 943 76 57 71.

Citroën AX 1.4. SS-AB.200.000 PTA. 630 750 099.

Fiat Tipo 16v. (SS-AM). 300.000. 943 76 06 53.

Renault 5. (SS-V). Deitu 943 76 37 74 telefonora.

Puch motorra. 30.000 pezeta. 943 76 29 95.

Opel Astra 1.6 GT. 943 76 00 12 (gauzez).

Opel Kadett GSI 16V. Egoera ona. 943 79 75 11 /98 08 (Mikel).

Kadett 1.4. 630 750 099.

Renault 21 (SS-Z). Deitu 943 76 26 92 telefonora.

Kawasaki Vulcan motorra (500 cc.). 617 76 67 60 / 943 76 27 00.

**7. ANIMALIAK**

**SALDU**

Txahalak eta bildotsak izozkailuan sartzeko; labeldunak; natural hazita. 689 541 861.

Setter bat galdu dut Goiko Estaziño inguruan. Zuria, marroia eta beltza. 943 76 47 82. 607 456 714 (Rafa).

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Terrazarako 10 mahai borobil herdoilgaitz egoera onean, eta plastikozko 45 aulki, prezio onean. 943 76 07 92.

Karro denda egoera onean. 943 78 70 74.

Sukaldeko altzariak, arraska eta kanpaia salgai. 943 76 55 63.

Hapro solariuma. Egoera onean. 943 76 51 76.

Imar karro-denda. Deitu 943 76 59 56 telefonora.

Bateria salgai. Merke. 943 76 50 77 (Manu).

Aulkiak eta mahaia. 943 76 46 90.

Jangelako mahaia eta sei aulki. 943 76 34 48.

**EROSI**

Diskoak, singleak eta LPak erosten ditut. 943 52 65 77.

LPak erosten ditut. 943 79 76 90.

Terrenoa erosiko nuke Bergara inguruan ura eramateko aukerarekin. 943 76 32 14 (18:30etatik aurrera).

**EMAN**

1-7 urte bitarteko umeendako erropa eta bainera, konketa eta komuna opari. 943 76 44 34.

**HARTU**

Caritasek sukalderako armairuak behar ditu. Deitu 943 76 11 98 telefonora.

**GALDU**

Forro polar gorria; Seminario inguruan. 943 76 27 04.

Argazki kamera galdu nuen martxoaren 4an. 943 76 54 20 (Nerea).



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**ERAIKUNTZA OFIZIALA**  
Gasteiz. 27693/4

**KOMERTZIALA**  
Bilbo. 28085/2

**TALDE ARDURADUNA**  
Bilbo. 28509/3

**PROIEKTU ARDURADUNA**  
Bilbo. 28602/3

**ELEKTRIKOKA**  
Bilbo. 28665/2

**INDUSTRI DELINEATZAILEA**  
Debabarrena. 28866/8

**ELEKTRIKOKA**  
Durangaldea 29014/4

**ELEKTRIZITATE ARLOKO KOMERTZIALA**  
Donostia 29021/2

**ANALISTA PROGRAMATZAILEA**  
Bilbo. 29535/1

**ZERBITZARIA**  
Araba. 29234/5

**TUTU JARTZAILEAK, 2**  
Bilbo. 29513/1

**CNC TORNULARIA**  
Tolosaldea. 29691/2

**MASAJISTA**  
Bilbo. 29925/2

**WEB ORRIALDEEN DISEINATZAILEA**  
Donostia. 29985/4

**ILEPAINATZAILEA**  
Bilbo. 29986/3

**SUKALDARI LAGUNTZAILEA**  
Bilbo. 30146/3

**SOLDATZAILEA**  
Goierri. 29492/4

**KOMERTZIALA**  
Bilbo. 29643/4

**2 PROGRAMATZAILEA**  
Bilbo. 29798/3

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**  
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.  
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**AINARA LETE**



argazkiak

**NAHIKARI** taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71



Amillaga, gasolindegi ondoan. Tf.: 943 76 57 34

**ZABALETA ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak  
Fatxadak, eskaparateak...




**GRUPO ZURICH**  
ASEGURUA

**Gurutzne Elkoro Gabilondo**



**GABILONDO**  
AGENTZIA INMOBILIARIOA

Barrenkalea 44, behea  
Tf./Faxa: 943 76 57 85



**ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRIKOAK, KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA



**DEBA GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefono Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

## Erritmo flamenkoak zapatuan Martires del Compas talde andaluzarekin

Bestalde, gaur, SA eta Erasok kontzertua eskainiko dute Jam aretoan

**Eskaintza oparoa** asteburu hone-tan Jam aretoak eskaintzen duena. Bi kontzertu izango dira; bata gaur, hilak 17, gaueko 22:00etan, Soziedad Alkoholika eta Eraso taldeen eskutik etorriko da. Bestea bihar, larunbata, Martires del Compas Andaluziako taldeak gaueko 22:00etan eskainiko duena. Musika flamenkoa gustoko duenak, beraz, zita aparta du bihar Jam aretoan andaluziara joan barik.

Bost kidek osatzen dute taldea: Chico Ocañak, ahotsa, Manuel Sotok, kitarra flamenkoa, Jesus Benjumeak kutxa eta perkusioa eta Rocio Vazquezek, koroak.

Hiru disko ditu kalean Cadiz eta Sevillako kideez osatutako taldeak: Flamenco Billy, Prohibido el cante eta Al compas de la llaga dolorida. Horrez gain, laugarren diskoaren atzean dihardute, eta ez ei da denbora gehiegitxo pasatuko argia ikusi arte.



Andaluziar hauek izango dira Jamen zapatuan.

Erritmo kubatar, afrikar eta flamenkoak batu eta hauen arteko nahasketatik sortutako produktoa entzun ahal izango dugu, larunbatean. Sarrerek aurrez 1.200 pezeta, 1.500 lehiatilan.

Gaur, bestalde, Soziedad Alkoholika eta Eraso taldeak izango ditugu herrian. Jam aretoan eskainiko duten kontzerturako sarrerek aurrez 1.300 pezeta balio dute eta 1.500 bertan.

## Apirilaren 5era atzeratu da Jose Mari Garmendiaren hitzaldia

**Jende ugari** bildu zen eguaztenean San Joxepe antolatutako 3. hitzaldira. Juan Madariaga, Nafarroako Unibertsitateko eta Unedeko Historia irakasleak, "Ekonomia, gizartea eta kultura Bergaran, Erregimen Zaharrean" gaia landu zuen.

Bestalde, apirilaren 5era atzeratu da Jose Maria Garmendiak, EHUKo Historia Katedradunak, datorren eguaztenean "Politika Bergaran XIX eta XX. mendetan" gaiaren inguruan eman behar zuen hitzaldia. Migel Altunan 19:00ean.



**GURIDI** altzariak

Era guztietako  
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

*Agirrebeña*

JATETXEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

**ezpeleta**  
Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako  
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

# Laskurain eta Alberdiren lanak Zarautz eta Iruñean

**Dani Laskurain eta Pello Alberdi** margolariek erakusketa bana antolatu dute. Laskurainek martxoaren 10ean Zarauzko Torre Luzea erakustaretoan ireki zuen bere erakusketa eta apirilaren 9ra arte egongo da ikusgai. Alberdik, bestalde, Iruñeko Molmar aretoan ireki zuen martxoaren 7an eta apirilaren 19ra arte egongo da bertan.

Dani Laskurain azken urteotan talde erakusketetan aritu izan da, baina zarauzko honetan, bakarka jardungo du. Bertan, giza gorputza jarrera ia fetaletan aurkezten du formato ertaineko kuadroetan.

Pello Alberdik bere lana Iruñean erakusten duen bigaren aldia da. Oraingoan, hamabost kuadro erakutsiko ditu. Oleo teknika erabiliz, eta kolore deskonposizioaren bidez irudi geometrikoak ikusi ahalko ditu Molmar erakustaretora hurbiltzen denak.



Postura ia fetalak Laskurain lanaren oinarri.

## erreseinak



Putz  
2. zenbakia  
Aldizkaria

Kalean da Putz aldizkari bigarren alea. Bihilabetekari ausarta dugu Putz. Kolaborazioak ere ez ditu makalak: Pako Aristi, Asier Serrano, Luis Elberdin, Juan Martin Elexpuru eta beste hainbatek hartzen du parte. Euskal kultura eta politikari zuzen zein zeharkako begiradaxoa ematen dio Putzek. Umorea, kritika, seriotasuna... adjetibo asko erabil daitezke Arrasaten egiten den aldizkari honi buruz hitzegiteko orduan. Aldizkaria, 2. zka., Apokaliften kultur elkarte.

-Apokaliften kultur elkarte 450 PTA



Idibihotz  
Arimaerratu  
Heavya

Idi Bihotz taldearen lan berria dugu honako hau. Arimaerratu hamaika kantaz osatutako lan freskoa dugu. 1999ko otsailaren 4tik 19ra bitartean Elkarlanean estudioetan grabatu eta nahastu du Idi Bihotzek. Iban baxua, Gorka gitarra eta ahotsak, Mikel gitarra akustika, ahotsak eta ahots nagusia eta Albaro bateria dira talde gazte honen arima. Diskoan hamaika abesti egonik, hauetako bat, "Lur", instrumentala da. Kolaborazioen artean, Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizu, Koma taldeko Brigi eta Noraezean taldeko Pedro daude beste musikari batzuen artean.

-Elkarlanean. 2.500 PTA

## bergara ezagutzen lehiaketa

### Finalerako lehia erabakigarria gaurkoa

Final erdia jokatzeko ari dira dagoeneko taldeak. Galderak ere apur bat zailagoak dira orain artekoak baino eta lehiakideek ere nabaritu dute hori. Bestalde, gaur erabakiko da finalera pasatuko diren bi taldeak zein izango diren.

Joan zen ostiralean Asmaizu eta Misfits lehiatu ziren; gaur Petu-Petuan eta Hik galdeu, eta hauen emaitzaren arabera jakingo da zein bi talde igaroko diren hemendik bi astera jokatu den finalera. Izan ere, lau taldeetatik puntu gehien lortzen dituzten biak igaroko dira finalera.

#### FINALERDIAK:

**ASMAIZU** ..... 198 puntu

**MISFITS** ..... 155 puntu

Jakintsuak, Badakitx, Azkarrak eta Jotapurtu taldeak kanporatuta geratu dira lehiaketatik.

#### ASTE HONETAKO LEHIAKIDEAK:

**PETU PETUAN** eta **HIK GALDEU**

Kartzela zaharrean, gaur, 19:30etan



## PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK  
• GARBIKETAK

• APAINKETARAKO PINTURAK  
• ERROTULOAK

Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

## Gallastegi

### Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMIA

**Ezker eskuma**

1. Bilakaera. 2. Aspaldikoa. 3. Haize zurrunbiloa. Kontsonantea. 4. Indioa. Toka, noa. Ez eme. 5. Belar idor. Doi. 6. Lehenengoa. Trebea. ... egin, goitik ari. 7. Sorra. 1999an. 8. Oinarrizko edari. Iodoa. Leherkari ezaguna. Bokala. 9. Unatu, akitu. Gaixo. 10. Sugetzarra. Bokala.

**Goitik behera**

1. Auzoa. 2. Labore-hautsa. Iparraldean, ordu. 3. Gehiegi. Jaun ingeles. Errep., gorotza. 4. Agintea dutenak. 5. Ibilgailu mota. Har ezak! 6. Artzainek mendira eramaten duten janari-kopurua. Oxigenoa. Atzizkia. 7. Gipuzkoako mendia. Bostehun. 8. Ikas eta Ari. Azkenekoa. Sarrera. 9. Musika nota. Gipuzkoan, zatoz. Röntgen. 10. Eakoak. Herri giputza.

**Soluzioa**

10. Farak. Aia. 9. Do. Atoz. H. 7. Bekoain. D. 8. IKA. Z. Atea. 5. Kamioia. Toi. 6. Anoa. O. Tun. 3. Lar. Sir. Ka. 4. Agintariak. 1. Bizilaguna. 2. Irina. Oren. Goitik behera 9. Nekatu. Eri. 10. Anakonda. A. 7. Gorra. Iaz. 8. Ur. I. TNT. A. 5. Lasto. Oza. 6. A. Ialio. Ok. 3. Zirimola. H. 4. In. Niak. Ar. 1. Blikabide. 2. Iraganekoa. Ezker eskuma

**bonofotoa**




Miguel Angel Elkorobereibar

**Zein da Angiozarko baserri honen izena?**

**galde debalde**

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zenbat puntu igo da abstentzioa Bergaran 1996ko hauteskudeekiko? A- 30 puntu B- 20 puntu C- 5 puntu
2. Zein souvenir jarriko ditu salgai Bedelkarrek herriko komertzioetan? A- Kamisetak, zeramika lanak eta postalak B- Prakak, zeramika lanak eta postalak C- Lapikoak, kamisetak eta postalak
3. Gorlako igoeraren zenbagarren edizioa jokatuko da datorren domekan? A- XXVII.a B- XXVI.a C- XXX.a



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Helio Garcia**arentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Heliori! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Maria Madalena** Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-C**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Codorniu**  
cava extra  
Lehorra/Erdilehorra/Brut, 3/4  
**699 PTA!**  
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

**Pelloc 60 urte ditu eta Fagorren dihardu lanian, baiña ekainian jubilaiko da berak esan doskunez. Urte asko daroia Lokatzen eta baita Gorlako igoeria antolatzen be, eta berak esaten daben moduan saltsero samarra da.**

**Nundik datorkizu txirringularitzarako zaletasuna?**

Beti gustau izan jat, baiña batez be semia ziklismuan hasi zanetik.

**Zeu ibiltzen zara bizikletan?**

Oin ez, baina lehen asko ibiltzen nitzan.

**Karreterako bizikletia ala mendikua?**

Mendikua, karreteria arriskutsua da eta.

**Noiztik zabiltz Gorlako igoeran antolatzaille lanetan?**

Aspalditik, baiña Lokatzakuok aurten hartu dogu antolatzeko arduria.

**Aurten zeinek irabaziko dau?**

Hainbestek ertetzen dabe... zailla da horri erantzutia, baiña Bergaran be bat oso ona daukogu, Unamuno, eta ia berak irabazten daben.

**Eta profesioaletan, zeinen zalia zara?**

Oin Olanorena, Estatu mailan onena da.

**Txirringulari on batek, ze ezaugarri bete bihar ditte zure ustez?**

Inportantiena konpletua izatia da, lau ondo ibiltzia, igotzen be bai...

**Tourra, Giroa, Vuelta ala Euskal Herriko itzulixa?**

Euskal Herrikua eta Euskal Bizikleta.

**Santa Marinako jaixetan be ibiltzen zara antolaketa lanetan, ezta?**

Bai, 16 urtian antolatu dogu geuk, baiña ia karrozatuta be bagare eta laga egin dogu.

**Bergarako ze jai gustatzen jatsu gehixen?**

Jaixak danak die onak.

# Pello Garitano

**Eta jaixetako ze egun edo ekitaldi?**

Dantzaldixak, pilota partiduak, bizikleta karrerak... Gauza asko egoten da jaixetan.

**Inauterixetan mozorrotu ziñan?**

Bai, paiaso, urte guztian egitten dogu paiasuana, baiña...

**Zu juergazalia izango zara, ezta?**

Bai, oso. Neri martxia gustatzen jat...

**Ze beste afiziño dauzkazu?**

Kantatzeko afiziño haundixa euki dot beti.

Urte askuan ibilli naiz abesbatzetan, Orfeoian, otxote baten be kantau neban...

**Ze musika mota gustatzen jatsu?**

Euskal musikia; Lertxundi, Oskorri...

**Zela definiduko ziñuke zeure burua?**

Saltsero samarra naiz.

**Zure defektu bat eta bertute bat?**

Defektuak asko eukiko dittut, baiña bat esatiarren, oso nerbiosua naizela. Bertutia, berriz, biharra daukanari laguntzeko prest egoten naizela beti.

**Manixa bat?**


Hori andriari galdetu biharko litzakio.

**Oporretarako mendixa ala hondartza?**

Gu udan Castellonera juten gara. Mendixa urte guztian eukitzen dogu bertan.

**Egin dozun azken oparixa?**

Martxoan zortzixa zala ta andriari detailetxo bat oparittu notsan.



**POL-POL**  
Taberna  
☎ 943 76 07 78

Masterreka 19, behea. 943 76 46 53.

**Ametz**

**TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALA**  
Shirley Garcia, akupuntore profesionala, 781 zkia.  
Ansietatea, stressa, tabakoa, depresioak, gizentasuna

Tratamendu pertsonalizatuak eta ondorio gabeak.

**KONDE**

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

Burdinate 1  
☎ 943 76 02 57

**iRUDI**

Erlojudenda  
Bitxitegia

Ibargarai 2  
943 6 51 65

**Ur~bide**  
ITURGINTZA

Zubieta 28, behea  
BERGARA  
943 76 00 57  
630 261 617



## Sokatira lehiaketa, 1956

Datorren maiatzaren 15ean San Isidro eguna ospatuko da. Antzuolan egun hori zelebratzeko ohitura dago aspaldidanik, goiko argazkia ikustea besterik ez dago. Erretratua 1956. urtekoa da. Kaletarren eta baseritarren arteko sokatira lehiaketa egin zen egun horretan eta, antza denez, kaletarrak tranpa egin eta irabazi egin zuten urte hartako desafioa, Euxebio Txintxurretak kontatu digunez. Baina baseritarrek mendekua hartu zuten urte bereko Andra Mari egunean, Antigua auzoan, eta menperatu egin zituzten kaletarrak.

Izugarrizko jendetza bildu ei zen egun hartan proba ikusteko, antzuolarren artean ikusmin handia sortu baitzuen. Bigarren proban, esan bezala, baseritarrek izan ziren garaile eta hor ditugu harro-harro, lortutako trofeoak erakusten. Roman Larrañagak atera zien erretratua eta honako hauek dira argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara: Jesus Toledo, Pablo Txintxurreta, Kaxiano Larrea, Euxebio Txintxurreta (kopa ezkerreko eskuan duena), Alfonso Antia eta Bentura Igartza.

*Argazkia: Euxebio Txintxurreta*

### ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!



**umelaga**

JATETXEA

**54 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

# Laser depilazioa

*Egin proba konpromiso barik  
martxoaren 23an.*

*Deitu eta eskatu txanda: 943 76 31 71.*



**LILURA**

Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7. BERGARA



# Irimo



## ZABALDU BERRIA!

Inalanbrikoa  
Poltsikokoa  
Telefonia fijoak  
Osagarriak  
Faxak

Deba ibaia

Zurradero

Ibargarai hiribidea

Seminarioa / M. Altuna

Herrilaç unak

**Zurradero 4**

**943 76 59 52**

*Telefonica*  
**MoviStar**

banatzaile  
ofiziala



# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea edo bainugela berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara.

**Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.



**6 URTEKO GARANTIA**

**FAGOR**   
**Sukaldeko altzariak**

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.